



Berrigara



BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Eguaztena / 2004ko apirilaren 7a / 580. zenbakia



COOL PANIC


'Soul on fire'

diskoa kaleratu berri dute



HIRIGINTZA: SAN ANTONIOKO ETXEAK/5 • FUTBOLA: REAL MADRIL-OSASUNA ETZI AGORROSINEN/9

BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

IRAGANA GOGORATUZ



Itzala utzi duten lantegiak:
Zerrajera, Elma...

Apirilaren 20an, martitzena,
20:30ean eta 22:30ean



Ikustekoa!

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa



ATREBENTZIAEZPADA/ Txirrindularitza gustuko duzu? Lehen etapatik zer nabarmanduko zenuke?



IÑAKI ZURUTUZA
37 urte



MARINA MADARIAGA
15 urte



EUSEBIO TXINTXURRETA
68 urte



PEPI ALDASORO
47 urte



MARIA JESUS LARRAÑAGA
57 urte



JUAN JOSE AZULA
39 urte

Bai, oso gustuko dut. Gainera, ez naiz lanera joan lasterketa ikustearren. Irteeran egon naiz eta herritik pasa den guztietan ere erre-pide bazterrerara atera naiz ikustera.

Ez zait askorik interesatzen, baina giro polita zegoen herrian, eta horregatik irten naiz kalera. Hala ere, txirrindulari batzuk ezagutzen ditut eta nire faborittoa Iban Mayo da.

Bai, asko. Gainera, etapa herrian izanda eguna oso alai eta gustura igarotzen da. Nire faborittoa Beloki zen, baina lehen aldiz pasatzean atzean zihoan eta erretiratu egin da.

Bai, asko gustatzen zait. Senarra ere txirrinduzalea da, eta Itzulia jarraituko dut. Lehen etapa grabatu egin nuen. Bergaran oso giro polita sortu zen lasterketa zela eta.

Pixka bat bakarrik, txirrindularitza baino gehiago giroa. Hala ere, parean pasatu zirenean ikusi nituen. Faboritorik ez daukat, ezagutu ere apenas egin ditut eta.

Jarraitzaile sutsua ez naiz baina gustuko dut. Herrian arazoak sortu dira proba dela eta, baina polita da horrelako gauza bat ikustea; ez da egunero tokatzen, gainera.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK LASTO FARDOAK ERRE ZITUZTENEI Infernukua tabernaren aldamenen lasto fardoak eta koltxoiak ipini zituzten Euskal Herriko Itzuliko txirrindularien babeserako. Ezezagun batzuek su eman zieten lasto fardoak zapatu eguerdian. "Jende askok jardun du lanean lasterketa ondo irteteko, eta ez da bidezkoa lan hori modu ino-
zoan zapuztea", esan digu herritar batek. //A.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

KIROLA /9

KULTURA /8

Turismo Bulegoa zabalik

Turismo Bulegoa zabaldu zuten aurreneko egunean. Irailaren 30era arte izango da zabalik.

Valverde garaile

Alejandro Valverde Kelmeko txirrindularia izan zen azkarrena Bergarako helmugan.

Aritzeta, Valentziara

Begarako Aritzeta abesbatzak bi emanaldi egingo ditu Valentzian, Aste Santuan.

ASTEKODATUA

1.000

COOL PANIC TALDEAREN DISKO BERRIAREN KOPIAK

Soul on fire da Cool Panic Bergarako musika taldeak bigarren lanari ipini dion izenburua. GP disko etxearekin grabatu dute diskoa eta 1.000 ale kaleratu berri dituzte.

BESTE EKESANA

“Gure lanaren zailtasunik handiena da abiadura ikaragarria hartuta eta, batzuetan, eguraldi ezin okerragoarekin pilotuaren eta kameraren arteko sinkronizazioa lortzea, mendateak karreraren erritmo izugarriari jarraituz jaisterakoan”
ANGEL BIDELUZE /
Moto gidaria Euskal Herriko Itzulian 'El Diario Vasco'/04-04-01

“Klown ikuskizunetan jendearen pultsua behar izaten dugu antzezanari neurria hartzeko. Horregatik seigarren emanaldira arte edo, eginiko lanak aldaketa handiak jasaten ditu behin finkatu eta sendotu aurretik”
VIRGINIA IMAZ/
Oihulari Klown taldeko antzezlea 'Argia'/04-04-04

BERAIEK DIÑOE/ Mikel Larrañaga



Txirrindulari festa izan dugu herrian

Euskal Herriko Itzulien lehen etapa Bergaran hasi eta amaitzeko egindako lan guztiak merezi izan du. Munduko txirrindulari onetakoak gertu gertutik ikusteko aukera izan dugu eta txirrindularitza zaleek goi mailako etapa batekin gozatzeko aukera izan dute. Argi geratu da sasoi betean egotea eskatzen duela Itzuliak; horren adibide dugu Joseba Belokiri gertatutakoa. Lazkaokoak laster esan dio agur Euskal Herriko Itzulariari. Ea zer gertatzen den egubakoitzera arte. Faborito asko dago eta lehia gogorra izango da, zalantzarik ez.

Eta ederra izan da Bergaran amaitutakoa. Hasi-ratik erritmo bizia jarri dute txirrindulariek eta borroka gogorra izan da etapa eskuratzeko. Azkenean Alejandro Valverde izan da garaile Ibargaraiko helmugan. Kelmeko txirrindularia momentuan tropeleko izarretako bat dugu

eta bere izena Bergararekin lotzea gauza ona da ziklismoa maite dugunontzat. Zale mordo ibili da etapa jarraitzen. Irteeran eta helmugan autografo eske eta argazkiak ateratzen gaztetxo pilo bat egon da; txirrindularitzak etorkizuna baduela erakusten du horrek. Beste kontu batzuegatik zeresana eman duen kirol honentzat albiste pozgarria, zalantzarik ez.

Antolatzaileak ere pozik geratu dira eta Lokatzaren inguruan lanean ibilitako guztiei zoriontzeko beharre-

“Antolatzaileak pozik geratu dira eta laguntza eskaini diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu”

an gaude, lan bikaina egin dutelako eta dena prestatutako bezala irten delako. Eskerrak ere Bergarako Udalarari eta lagundu izan diguten enpresa eta komertzioei. Bestalde, egunotan jasan behar izan ditugun eragozpenengatik, barkamenak Bergarako herritarrei. Azkenean, eguraldia lagun, festa bat izan da gaurko eguna. Ea hurrengo baten ere errepikatzerik daukagun.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 2**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ZAPATUA, 3**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- DOMEKA, 4**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 5**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- MARTITZENA, 6**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 7**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 8**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorenzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Santa Marina
Domekak:
11:00, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domekak: 10:00.
Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | |
| Elosu
Domekak: 10:30. | |
| Ubera
Domekak: 10:30. | |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1935EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA APirilAREN 25EAN

1935ean jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute apirilaren 25ean Zumelaga jatetxean, 14:00etan. Izenematea Euskadiko Kutxan, 12 euro ordainduta. Argibideak 943 76 27 12 (Regino Valle) telefono zenbakian.

1965EAN JAIOTAKOAK

1965ean jaiotakoan afaria maiatzaren 15ean Txarran-txa jatetxean. Aurretik Pol-Polen elkartuko dira, 19:00etan. Izenematea Arrano, Pol-Pol, Etxagi eta Popis tabernetan.

MARISKO-JANAREN ZOZKETA

Bergara Aurrerak Erramu Zapatuan egindako marisko-janaren zozketan, 3.947 izan da saritutako zenbakia.

ATZEGI ELKARTEAREN DEIA

Atzegik antolatuta, bazkaria izango da Bergaran maiatzaren 15ean, Zabalotegin. Debagoien mailako ekitaldia izango da. Antolaketan laguntzeko gertu daudenek 943 76 52 39 (Karmele) zenbakira dei dezakete.

ODOL ATERATZEA

Bergarako Odol Emailek aditzera eman dute hurrengo odol ateratzea apirilaren 14an izango dela, Seminarioan, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

IPUIN LEHIAKETA

Debagunek ipuin barregarrien lehiaketa deitu du. Lehen saria 450 eurokoa da, eta Debagoieneko onenak 150 euro jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 28ra arte izango da zabalik. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

URBANOENORDUTEGIA

- San Lorenzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiki okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Oلابarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolbia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Hainbat herritarrek bat egin zuten Senideekin

Senideak euskal presoen familiarren elkarteak prentsaurrekoa eman zuen Bergarako kultura etxean, 1994ko apirilean. Hainbat herritarrek bat egin zuten Senideak elkartearekin. Sasoi hartan Bergarako 17 preso politiko eta beste hiru sozial ziren Espainiako Estatuan sakabanatuta.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Momorro”



Zomorroa.

— Ortuko gauzai gero ta momorro geixau eitte jako.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 2	0 °C
MAXIMOA Zapatua, 3	20 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	3,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 31	17 °C	9 °C	- l/m²
Eguena, 1	16 °C	5 °C	3,6 l/m²
Egubakoitza, 2	17 °C	0 °C	- l/m²
Zapatua, 3	20 °C	6 °C	- l/m²
Domeka, 4	20 °C	3 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOPELIKULAK

‘BIG FISH’

ZUZENDARIA: TIM BURTON. AKTOREAK: EWAN MCGREGOR, HELENA BONHAM-CARTER.

HARIA. Kontu-kontari aritzea da hiltzorian dagoen aita baten zale-tasun handiena, bere bizitzan gertatutako pasadizoak kontatzea. Semeari, errealitatea eta ametsa nahasten dituela iruditzen zaio.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, 19:30ean eta 22:30ean; zapatuan, 22:30ean; astelehenean, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNTAUZIOA: ●●●●●

‘MONSTER’

ZUZENDARIA: PATTY JENKINS. AKTOREAK: CHARLIZE THERON, BRUCE DERN.

HARIA. Aileen bere buruaz beste egitekotan egon zen, Selby lesbiana ezagutu zuen arte. Hainbat gizon hilko ditu, eta saileko hiltzaile bihurtuko da. Charlize Theronek Oscarra eskuratu du film honetan egindako lanagatik.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 19:30ean eta 22:30ean; domekan 19:30ean eta astelehenean, 19:30ean eta martitzenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTAUZIOA: ●●●●●

‘LA ÚLTIMA NOCHE’

ZUZENDARIA: SPIKE LEE. AKTOREAK: EDWARD NORTON, BRIAN COX.

HARIA. Monty Brogan espetxeratzear dago, drogarekin trafikatzegatik. Askatasunaren azken gauean, bere aitarekin elkartzen saiatuko da, baita gaztetako bere lagun minekin ere. Neskalaguna agurtzeko ordua ere iritsi zaio, zazpi urtez kartzelan sartu aurretik...

TOKIA ETA ORDUA. Zine-kluba. Eguenean, apirilaren 15ean, 20:00etan.

PUNTAUZIOA: ●●●●●

BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ETXEBIZITZA/ Lehen blokeko etxebizitzak orain dela urtebete eman zituzten

San Antonioko bigarren blokeko etxebizitza sozialak, gertu

EDU MENDIBIL

San Antonion eraikitako etxebizitza kontzertatuak amaitu dituzte dagoeneko. Bigarren blokean 18 etxebizitza egin dira. Lehen blokeko etxebizitza sozialak orain dela urtebete inauguratu zituen Javier Madrazo Etxebizitza eta Ingurumen Kontseilariak.

Lehenengo urtean Madrazok inauguratutako etxebizitzak babes ofizialekoak dira, eta bertako bizilagunek alokairuan hartu dituzte etxeok. Bigarren blokean beste 18 etxebizitza egin dituzte eta azken hauek kontzertatuak dira, jabeek erositakoak. Joan zen urtean egindako zozketan, 257 herritarrek hartu zuten parte.

Bestalde, Urteaga 19 eta 21 zenbakidun eraikinetan bizi ziren hiru familia etxe berrietara pasatuko dira: maizterretako biri lehen blokean etxebizitza alokatze lehentasunezko eskubidea aitortzea erabaki zuen Udalak otsailean. Era berean, bigarren blokeko etxebizitza bat erosteko lehentasunezko eskubidea aitortu zion udalak beste herritar bati.



Eskuman, San Antonioko bigarren blokean egindako etxebizitza kontzertatuak.

Esan bezala, bigarren blokean egindako hemezortzi etxebizitza kontzertatuak gertu dira dagoeneko.

ETXEBIZITZA GEHIAGO EGITEKO ASMOA
Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak esan duenez, Movillas lantegiko lursailean eta pareko aparkalekuan etxebizitza gehi-

go egiteko asmoa dago: "Proiektu hori aztertzen gabiltza eta etorkizunean ehunetik gora etxebizitza egin nahi ditugu, tartean babes ofizialekoak".

Eguraldi bikaina eta giro aparta Erramu Zapatuan

E.M.

Erramu Zapatuko feriak sekulako jendetza erakarri zuen Bergarara. Eguraldia lagun, milaka lagun ibili ziren goizetik herriko kaleetan, artisauak, jakiak, abelburuak eta abarrak ikusten. Era askotako produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izan zen, eta giro bikaina izan zen herri barruan zehar sakabanatutako postuetan. Ganadu erakusketak ere tarte berezia izan zuen Ibargarain eta ehun bat abelburu izan ziren ikusgai. Seminarioko patioan ziren animaliek ere ikusmin handia piztu zuten: koatiak, orei-

nak, kanguruak, hegazti exotikoak eta Hego Amerikako zari-gueiak ziren tartean.

TXORIMALO LEHIAKETA

Urtetik urtera postuen kopuruak gora egiten du eta antolatzaileek emandako datuen arabera, 200 bat postu izan ziren zapatuan.

Jardunek antolatutako txorimalo lehiaketari dagokionez, 38 talde izan ziren lehian. Gazte-txoeren artean, Julen De Diosen taldeak irabazi zuen lehen saria eta 12 urte eta 65 urte artekoetan, berriz, Txiskrilabi taldeak irabazi zuen. Txorimalo lehiaketaren X. ekitaldia zen aurtengoa.



AITOR LIZARRALDE

Seminarioan ziren animaliek ikusmin handia piztu zuten.

LABUR

XX. Bergara Hiria Argazki Lehiaketa deitu dute

Bergara Hiria Argazki Lehiaketako XX. ekitaldia deitu dute. Zuri beltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira eta lanak ekainaren 2ra arte jasoko dituzte. Kategoria bakoitzeko lehen hirurek eta herriko onenak sariak jasoko dituzte. Edozein argibidetarako 943 76 30 90 telefono zenbakira dei dezakezue.

Autoenplegu ikastaroa Udalaren eskutik

Bergarako Udalaren Enplegu Zerbitzuak antolatuta, autoenplegu ikastaroa izango da apirilaren 19tik maiatzaren 5era bitartean. Besteak beste, autoenplegu prozesua, merkatu analisia eta marketina, ekonomia eta finantza analisia eta lan kudeaketa jorratuko dituzte ikastaroan.

Ikastaroaren gaineko argibideak jasotzeko, Udalaren Enplegu Zerbitzura edo 943 77 91 24 telefono zenbakira jo dezakete interesatuek.



Ibarretxe lehendakaria, Miguel Altunaren standean, Bilbon

Bergarako Miguel Altuna ikastetxeak Lanbide Heziketaren gaineko II. azokan hartu du parte, Bilboko Eraskustazokan, martxoaren 25etik apirilaren 2ra. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan eskaintzen diren 21 familia egon dira ordezkaturak. Miguel Altunakoei lau produktu erakutsi zituzten ferian: catering-eko koilaratxo bat, plastikozko giltzatak, boligrafoaren muturra (aluminiozkoa) eta merkataritza-guneetan erostekotako egiteko karroetan erabiltzen diren txanponak.

Feria zabaldu zen egunean Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren bisita jaso zuten Miguel Altunakoei. Angeles Iztueta hezkuntza kontseilaria ere bertan izan zen, eta Iñaki Larrañaga Miguel Altunako zuzendariak ikastetxean egiten den lana azaldu zion.



ARTXIBOA

Euskara ikasten edo lantzen diharduten ikasleak etxean jasotzeko aukera izango dute interesatuek.

HEZKUNTZA/ Eskaerak jasotzeko epea apirilaren 18ra arte izango da zabalik

Euskara ikasleak udan etxean jasotzeko programa

E.M.

Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak *Egonaldiak familia euskaldunetan* izenburuko programa jarri du martxan aurten ere. Euskara landu edo hobetu nahi duten ikasleak etxean jasotzeko interesa dutenek udalean eman dezakete izena.

Egonaldiak familia euskaldunetan izeneko programa biztanleriaren %70etik gora euskalduna duten herrietan aurrera eramaten da. Esan bezala, euskara landu edo hobetu, edota euskalkiren bat ikasi nahi duten ikasleak euskaldun familietan egonaldiak egiten dituzte. Uztailetik irailera bitartean izango dira egonaldiak. Beraien etxeetan ikasleak jasotzeko gertu dauden familiek Udaleko Euskara Zerbitzuan egin

dezakete eskaera, apirilaren 18a baino lehen. Argibideak 943 77 91 66 telefonoan jaso ditzakezue.

Ikasleak etxean jaso ahal izateko baldintza batzuk bete behar dira: egonaldia eskaintzen den hilabetean etxean gutxienez familiak hiru kide izatea beharrezkoa da eta, logikoa denez, ohiko komunikazio-hizkuntza euskaraz izan behar da. Hartzen den ikasleari logela pribatua eman behar zaio. Ikasleak, etxeko zein baserriko lanetan parte hartzera behartu-

Ikasleak etxean jasotzen dituzten familiendako dirulaguntzak izaten dira

rik ez badago ere, ohiko eginkizunetan parte har dezake, berak hala nahi badu. Ikasleak jasotzen dituzten familiendako dirulaguntzak izaten dira.

ESPERIENTZIA POSITIBOA

San Juan auzoko Aritizabal baserriko Juan Beitiak ikasleak hartu izan ditu aurreko urteotan eta esperientzia guztiz positiboa izan dela adierazi digu: "Bospasei urte badira norbait baserrian hartzen dugula. Betiere neskak etorri zaizkigu: Barakaldotik, Santurtzitik, Donostiatik ere urteren baten... Aurten ere eskaera egin dugu udaletxean. Bilobak ere baserrian ibiltzen dira udan eta ikasleak gustura egon izan dira gurean. Baserri giroan murgilduta, euskara ikasteko aukera daukate eta ondo moldatu izan dira denak. Aurten ere norbait jasotzeko eskaera egin dugu".

Turismo Bulegoa zabaldu zuten aurreko egunean

E.M.


Udaleko Turismo Bulegoa zabaldu zuten aurreko egunean, apirilaren 1ean, Udaletxeko sarrearen ondoko bulegoan. 1995etik, urtero zabaldu izan du udalak Turismo Bulegoa. Udaleko iturriek emandako datuen arabera, joan zen urtean 3.500 kontsulta inguru jaso zituzten. Xabier Aranburu museologoak adierazita, maiatza, abuztua eta iraila dira turista gehien jasotzen dituzten hilabeteak.

IRAILAREN 30ERA ARTE ZABALIK

Aurreko urteotan bezala, Bilboko Nis enpresa arduratuko da zerbitzua eskaintzeaz. Nis enpresa-ko Isabel Lopez, Josune Galartza

eta Maialen Elortza izango dira Turismo Bulegoan lanean. Turismo Bulegoa irailaren 30era arte izango da zabalik. Aste barruan 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era zabalduko dute eta domeka eta jaiegunetan 11:30etik 14:30era. Hala ere, ez dute domeka eta jai egun guztietan zabalduko. Ohikoa denez, herriko ondarea erakusteko bisita gidatuak antolatuko dituzte. Interesatuek 943 77 91 28 telefono zenbakira deitu dezakete argibide eske.

Orain dela 10 bat urtetik hona dezente egin du gora bisitarien kopuruak. Debagoienari dagokionez, Oñatin, Arantzazun eta Bergaran dira turistaren harrerarako bulegoak.



AITOR LEZARRA

Argazkian, bisitari bat kontsulta bat egiten Turismo Bulegoan, astelehen eguerdian.

LABUR

Pazkoetan txosna jartzeko eskaerak maiatzaren 7ra jasoko dira udaletxean

Mendekoste jaietan txosna jartzeko interesa duten taldeek maiatzaren 7ko 13:30ak arte izango dute eskaerak aurkezteko epea zabalik. Jaiak maiatzaren 28tik ekainaren 1era ospatuko dira.

Udaleko Gobernu batzordeak lurzoru publiko txosnekin ospatze baimena arautuko dun baldintza plegua onartu zuen martxoaren 15ean.

Salamancako Lopez-Chaves ganadutegira joateko irteera antolatu dute Zezen Zaleek

Zezen Zaleak taldeak apirilaren 24an eta 25ean Salamancako Lopez-Chaves ganadutegira joateko irteera antolatu du. Irteeraz larunbatean, 06:00etan, frontoitik. Eta itzulera: domekan, 19:00etan. Prezioa: 160 euro (autobusa, bazkariak, kapea eta hotela barne). Izenematea Ganbara tabernan, apirilaren 17a baino lehen.



ARRI

Industri hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tel. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

OREKA

PSIKOLOGIA

FAMILIAKO, BAKARKAKO
ETA BIKOTEKO TERAPIA.

- Harremanetarako zailtasunak: bikotean, familian eta taldean.
- Portaera arazoak
- Eskola-porrota
- Antsietate, depresio eta elikadura arazoak.

Miriam Mujika Tel.: 676 617 055
Ainhoa Basurko Tel.: 615 703 725
AURREERA ERAIKINA
Urtzaile 1 solairua, EIBAR

ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA




GIRO APARTA JARDUNEO KANTU AFARIAN

Giro bikaina izan zen Jardun elkarteak egubakoitzean antolatutako kantu afarian. Txarrantxa jattetxean 42 lagun elkartu ziren, eta bapo afaldu ondoren, kantatzeari ekin zioten, trikiti eta gitarra soinuekin lagunduta. Hamaiketarik goizeko ordu biak arte jo eta su jardun zuten kantuan, ezarriak urratu arte. Ondoren, kalez kale eta tabernaz taberna jarraitu zuten kantuan. Kantu afaria erromeria bihurtu zen. Esan bezala, aparteko giroa izan zuten eta antza kantuan primeran egiten dute, zapatuan eguraldi bikaina izan genuen-eta. Beste abesbatza bat izango al dugu, ala?

BERTSO ESKOLAKOAK LEKEITION

Jarduneko Bertso Eskolako lagunak Lekeition izan dira aste bukaeran. Zapatuan Aulestin ospatzen zen Bizkaiko Bertsolari Gazteen Eguna aitzakia hartuta, hamar lagun joan ziren. Lekeitioko Oleagi kanpinear izan dira, eta primeran ibili dira. Zapatuan Aulestin bertso saioa eta erromeria izan zituzten eta domekan, berriz, Lekeition ibili ziren, kalerik kale bertsoan, gitarra eta trikitiaren laguntzarekin. Aste Santuko atsedeneren ondoren, eskolara itzuliko dira herriko bertsozaleak. Bitartean, ondo ibili!



IKASLE ABERTZALEAK JAI GIROAN

Ikasle Abertzaleak taldeak antolatuta, 80 lagun inguruk bazkaria egin zuten egubakoi-tzean Bergarako gaztetxean. Lagunartean giro ona izan zen nagusi. Bazkal aurretik, goizean zehar herri eskolen eta Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren gaineko eztabaidak izan zituzten ikasleek. Jarraian, ikasleen manifestazioa egin zuten herriko kaleetan eta ondoren, trikitalarien laguntzaz, tabernaz taberna ibili ziren bazkal aurreko giroa pizteko. Bazkalostean, berriz, jokoak egin zituzten ikasleek eta iluntzean Deskontrol taldearen kontzertua izan zen gaztetxean. Esan bezala, programa zabala izan zuten ikasleek, eta, Aste Santuko oporren atarian, giroa inoiz baino alaiagoa izan zen.

MUSIKA/ Talde bergararrak Andoaingo Garate estudioetan grabatu zuen diskoa eta GP disko etxeak kaleratu du

'Soul on fire', Cool Panicen bigarren diskoa

EDU MENDIBIL

Cool Panic musika taldeak bigarren diskoa kaleratu berri du: *Soul on fire*. GP disko etxean grabatutakoa, diskoak hamar kantu batzen ditu. Cool Paniceko kideek datorren apirilaren 30ean aurkeztuko dute euren azken lana Bergaran, gaztetxean.

Itziar Iturbe (ahotsa eta pande-reta), Alex Muela (gitarra), Joseba Lasa (gitarra), Mikel Azkargorta (baxua) eta Iker Narvaezek osatzen dute Cool Panic. Elliot Murphy musikari estatubatuarren kantu batetik hartu zuten taldearen izena. 1998an sortu zuten Cool Panic eta honako hau euren bigarren diskoa da, *Made of stone* (2001, Safety pin disko etxea) lanaren ondoren. Joan zen urteko apirilean grabatu zuten, Andoaingo Garate estudioetan, eta GP Records disko etxeak 1.000 kopia kaleratu berri ditu.

HAMAR KANTU

Soul on fire izenburuko lanak hamar kantu ditu, tartean bi bertso: *Black tea* (The Dogs taldearena) eta *I can't keep from crying sometimes* (Al Kooper). Gainerako kantuak taldeak landutakoak dira. Itziar Iturbe eta Joseba Lasak zera esan digute: "Gure lehenbiziko diskoarekin konparatuz, bigarren honetan kantuak landuagoak dira eta soinu aldetik ere maila hobea dauka. Gustura geratu gara grabaketarekin". Kantuen nahasketak Jorge Reboedok egin zituen, Errenterriako Estudio 77 estudioetan:



MIKEL GARATE

Argazkian, Cool Panic taldeko kideak.

"Diskoa grabatzea baino, zailagoa da hura merkatura zabaltzea. Lehenbiziko grabaketa hainbat disko etxetara bidali genuen, baina GPko Jose Luisek agertu zuen interesa diskoa merkatura ateratzeko", diote Cool Panicekoek. Beraiekin batera, Señor No, Ultracuerpos eta Rockzilla taldeak dira GP disko etxean.

ROCK-AND-ROLL LANA

Taldearen estiloa definitzerakoan ez dute argi Josebak eta Itzia-

Diskoak hamar kantu ditu, eta tartean bi bertso egin dituzte Cool Panicekoek

rrek: "Geuk rock-and-rolla entzuten dugu eta guri entzun digun jendeari denetik entzu-

ten diogu, punk-rocka egiten dugula, garaje-rocka... Musikan etiketa asko dago gaur egun eta asmatzea ez da erraza: onena jendeak diskoa entzutea eta bere ondorioak ateratzea izango da. Diskoan askotariko abestiak daude: zuzenak batzuk, motelagoak, hainbat kantuk psikodelia ukitua ere badute...".

Kantuen hitzei dagokienez, tratu txarrak, bakardadea eta beste hainbat gai jorratu dituzte Cool Paniceko kideek. GPko dis-

ko etxeko arduradunek *Good times* izenburuko abestia (diskoa hasten duena) bultzatu nahi dute irratietan eta entzuteko. Helburua argi daukate: "Jendeak diskoa entzutea eta ahal den toki gehienetan zuzenenean jotzea, ezagutzera ematea". Bien bitartean entseguekin jarraituko dute. Astean behin elkartzen dira goiko estazioan. Itziarrek esan digunez, taldearen funtzionamenduan entseguek berebiziko garrantzia daukate.

HAINBAT KOLABORATZAILE

Diskoaren izenburuaz gain, kantu guztiak ingelesez abesten dituzte: "Musika estilo hau ingelesez entzun dugu beti eta horrela kantatuz sentitzen gara erosoer, horrela ateratzen zaigu, besterik ez". Diskoan hainbat lagunek hartu dute parte: diseinua Inaki Iturbek egin du, argazkiak Mikel Garaterenak dira eta Izaro Ape-rribaik egin ditu *The way I die* abestiaren hitzak. Diskoa Jabier Larrañaga zenari eskainita dago, ingelesez ere bai: *Dedicated to the memory of Jabi Infer*.

APIRILAREN 30EAN, GAZTETXEAN

Soul on fire 12 euroren truke jarri dute salgai. Esan bezala, 1.000 kopia kaleratu dituzte eta beraiek 300 bat saltzeko asmoa daukate, kontzertuetan eta. Bergaran apirilaren 30ean egingo dute diskoaren aurkezpena, gaztetxean. Maiatza eta ekaina aldera, berriz, Estatu mailan hainbat kontzertu emateko asmoa dauka Cool Panicek. Joan zen abenduan Alacant eta Valentzia aldean ibili ziren jotzen bergararrak.

Aritzeta, Valentziara Aste Santuan

E.M.

Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du Liria herrian zapatuan, apirilaren 10ean. Lliriako Primitiva musika bandak gonbidatu du talde bergararra Valentzian abesteko. Valentziako herri gehienetan gertatzen den moduan, musika tradizio handikoa da Liria. Bi musika banda dituzte Llirian, La Union eta Primitiva hain zuzen ere. Hain zuzen ere, Primitiva bandaren aretoan emanaldia egingo du Aritzetak zapatuan, 19:30ean. Domekan, berriz, Valentziako Euskal Nafar Etxean abestuko dute, Aberri Eguna ospatzeko.

BI EMANALDI

Bihar, eguena, joango dira autobusez Valentziara Aritzetak kideak, 06:00etan. Gaur egun 35 lagunek osatzen dute abesbatza eta horiekin batera hainbat lagun joango dira. Aritzetakok Lliriako La Salle ikastetxe-



ARTXIBOIA

Argazkian, Aritzeta abesbatzako kideak.

an hartuko dute ostatu aste bukaeran. Zapatuko emanaldian, Imanol Urtzelaik zuzendutako abesbatzak ondoko pieza hauek abestuko ditu, besteak beste: *Santa Ageda*, *Shenandu*, *Maria Maialen*, *Car-*

navalito, *El abanico*, *In the first light*, *E preciso continuar* eta *Contigo en la distancia*.

Kontzertua emateaz gain, Lliria eta Valentziako beste hainbat txoko ezagutzeko aukera izango dute bergararrek.

LABUR

Iparraldeko Bidaia taldeak kontzertua emango du apirilaren 23an Novedadesen

Iparraldea bertan programaren barruan, Bidaia musika taldeak emanaldia egingo du apirilaren 23an Novedades aretoan, 22:30ean.

Mixel Ducau, Caroline Phillips, Ritxi Salaberria eta Javi Areak osatzen dute Bidaia eta joan zen urtean *Oihan* izenburuko diskoa kaleratu zuten.

Unai Azkarate bergarar gaztearen komikia saritu dute XVII. Arrasate Lehiaketetan

Unai Azkarate bergararra saritua izan da AED elkarteak antolatutako XVII. Arrasate Lehiaketetan. Unai Azkaratek *Gu kontzertura goiaz, eta zu?* izenburuko komikiagatik jasoko du saria.

Unairekin batera, Iratxe Arrese, Iraitz Guridi, Sara Romero, Danel Iriarte, Unai Pagaldai, Marta Garcia eta Manex Rus saritu dituzte. Sari banaketa apirilaren 22an egingo dute, Monterronen.

Dantza ikastaroa, datorren ekainaren 12an Bergaran ospatuko den erromeriari begira

Ekainaren 12an Bergaran izango den erromeriari begira, dantza ikastaroa antolatu dute apirilaren 14tik ekainaren 11ra. Eskolak Aranzadi Ikastolan izango dira, eguazten eta egubakoitzetan 19:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 11:00etatik 12:00etara.

Izenematea kultura etxean egin daiteke, 943 77 91 59 zenbakian.

FUTBOLA

Real-Madril-Osasuna gazte mailako partidu egubakoitzean Agorrosinen

Realak antolatutako gazte mailako nazioarteko txapelketan zortzi talde lehiatuko dira

IRATI AGIRREAZALDEGI

Nazioarteko Gazteen Sariketa jokatu da apirilaren 8tik 12ra bitartean Gipuzkoako eta Iparraldeko hainbat futbol zelaitan. Hain zuzen ere, partidu horietako bat Bergaran izango da, egubakoitzean. Osasunak eta Real Madrilek jardungo dute, 17.00etan.

Real, Athletic, Osasuna, Real Madril, Bartzelona, Ajax, Paris Saint Germain eta Gipuzkoako konbinatuko gazte mailako futbolariak nazioarteko sariketan hartuko dute parte Aste Santuan. Realeko Olabereren esanetan, "sariketan euskal talderik onenak, estatu mailako ordezkartza esanguratsua, eta Europa eta mundu mailan bai profesionalki zein harrobiko futbolean eredu diren bi talde egongo dira".

BERGARAN EGUBAKOITZEAN

Zubietan izango da estreinako partidua, eguenean, Zubieta XXIen instalazio berrien inaugurazioarekin bat eginez. Reala eta Athletic izango dira aurrez



OSASUNA

Osasunako mutilek Real Madrilekoak izango dituzte aurrez aurre egubakoitzean.

aurre eta ETBk zuzenean emango du partidua 12:00etan hasita.

Gainontzeko partiduak apirilaren 9an, 10ean eta 11n jokatu dira Gipuzkoako eta Iparraldeko zelaitan eta finala astelehenean, hilaren 12an, Anoetan.

Bergarako norgehiagoka hilaren 9an, egubakoitzean, jokatu

ko da Agorrosinen, arratsaldeko bostetan, eta Real Madril eta Osasuna izango dira aurrez aurre.

Beste zenbait lekutan ere izango dira partiduak. Foru Aldundiko Kirol Saileko Iñaki Ugarte-bururen esanetan, "sariketak etorkizuneko futbolariak ikusteko aukera ematen du".

Aritz Bikuñak urrea eskuratu zuen Espainiako boccia txapelketan

I.A.

Aritz Bikuña bergararrak, mar txoan, selekzioen arteko Espainiako boccia txapelketan hartu zuen parte, Euskal Herriko selekzioarekin.

Oviedoko Lugo de Llanera herrian jokatu zen txapelketa eta Euskal Herriko selekzioak emaitza onak lortu zituen. Taldeka txapelkun izan ziren eta urrezko dominarekin itzuli zen Bikuña etxera, gainontzeko taldekideak bezalaxe.

Aritz Bikuña aurrez ere parte hartutakoa da Espainiako boccia txapelketan.

ESLALOMA ALTZAN

Boccian ez ezik eslalomean ere jarduten du Aritz Bikuñak. Iaz Espainiako eslalom txapelketan zazpigarren sailkatu zen.

Eslalomean ibilbide bat pasa behar dute partaideek, ahalik eta denbora laburrenean, eta tartean dauden konorik bota gabe.

Joan zen astean Espainiako txapelketarako sailkapen proban izan zen Bikuña Altzan. Gipuzkoa, Araba eta Nafarroakoak lehiatu ziren bertan. Orain, gainontzeko lurraldeetan partaideek egindako denborak hartuko dira kontuan Huelvako finalean zein izango diren erabakitzeko.



ARTXIBOA

Aritz Bikuña entrenamenduan.

ESKUBALOIA

Oñatiarrek irabazi zuten Labegaraietan kadete mailako lagun arteko hiruko torneooa

Bergarako, Oñatiko eta Arrasateko kadete mailako mutilek lagun arteko hiruko torneooa jokatu zuten Labegaraietan. Aloña Mendikoek bi partidu irabazi zituzten, bergararrek bat eta Arrasatekoek, berriz, bat ere ez. Beraz, Aloña Mendi izan zen torneooko irabazlea. Aste Santuan bergarako jokalariek oporrak izango dituzte eta hurrengo saioak apirilaren 17an edo 18an izango dira.

FUTBOLA

Preferente mailako taldeak besterik ez du jokatu Pazko asteko asteburuan

Azken jardunaldia asteburuan jokatu ostean, herriko futbolari gehienek atsedena izango dute. Izan ere, Aste Santuan ez da herriko taldeen partidurik egongo. Apirilaren 17an, zapatuan, ordea, preferente mailako ekipok Aretxabaletako taldea izango du aurrez aurre. Gainontzeko taldeak, oporren ostean, apirilaren 24an eta 25ean itzuliko dira partiduei dagokienez ohiko jardunera.

FOTOKIROLA



Valverde lehenengo Bergarako helmugan

Kelme-Comunidad Valenciana taldeko Alejandro Valverdek sprintean irabazi zuen astelehenean Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa. Bigarren Angel Vicioso izan zen eta hirugarrena Davide Rebellin. Helmugan lehen euskalduna David Etxebarría izan zen. Guztira, 168 txirrindulari izan ziren San Martin plazako irteeran, baina batzuek erretiratu egin ziren, Joseba Beloki eta Andoni Aranaga, esaterako. Martitzeneko ibilbideari ere Bergaran ekin zioten txirrindulariek. //A.

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkalea 21 BERGARA

Maxim's
943 76 20 61
BERGARA

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel. 943 76 44 95


Aldoka
Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

JAUJA
KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

BERGARA-UDA

Bergararren eta
aretxabaletarren arteko
derbia Goiena Telebistan

Apirilaren 17an, zapatua,
Agorrosin futbol zelaietan, 17:00etan.
19:30ean GOITBn



Ikustekoa!

BERGARA-UDA
Aretxabaletako laguntzaileak: Aretz, Azkena, Basabe jatetxea,
Ezkutu, Gurea, Orly, Zاراia.
Bergarako laguntzaileak: Pol-Pol eta Nahikari taberna





2004ko apirillaren 7xa

Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 15. alia

IEPA LAGUNOK!

Gaurko honetan lehiaketa egongo da. Baiña oraingo honetan Aste Santuko egun danak dittuzue ariketak egitteko. Beraz, ondo segi oporretan eta ez zaittezte zorabiatu hainbeste hizkirekin! Animo!!!

URREZKO ARAUAK



- Atezaiña banitz jaurtiketa danak geldittuko nittuzke.
- Zuk gu trenian ikusi giñuzun.

~~Atezaiña banitz jaurtiketa danak geldittuko neban. Zuk gu trenian ikusi zoskuzun.~~

HIZKI SALDIA

Bete itzazue hutsuniak aditzekin eta gero topatu hauek hizki saldan:

- 1.- Ama! Juan Mikelekin pelotan jokatzera?
- 2.- Atzo guk Andoni Maialen joten ikusi
- 3.- Guk Anari gurekin etortzeko esan atzo.
- 4.- Goizian gurasuak gu trenian ikusi
- 5.- Jolastorduan Koldok Martini ostikada bat emon
- 6.- Heraiñegun nik ixa ez zure lagunak ezagutu.
- 7.- Nik atzo esan..... amari lanetik irtendakuan ogitartekua ekartzeko.
- 8.- Gaur be irakasliak zu gizurretan harrapau
- 9.- Atzo illuntzian Markelen aittittak baserritxik intxaur pillia ekarri
- 10.- Neri sukarra etorriko..... ohian geldittuko nintzateke.
- 11.- Nere lagunei txakurra atzetik antxintxika hasiko beldurtuta alde egingo lukete.



Ñ	G	I	U	E	R	E	U	T	A	S	T	O	D
X	A	L	J	N	U	I	N	D	F	A	S	Z	B
R	I	S	D	L	M	H	G	T	P	O	M	N	A
A	T	D	F	G	H	T	I	U	Z	M	K	I	L
K	T	N	E	I	K	E	N	E	A	T	D	O	I
N	U	S	D	X	Z	A	F	G	I	O	E	T	T
N	E	M	L	J	S	I	E	R	T	I	H	N	Z
O	G	B	A	T	G	E	U	S	T	I	D	A	A
T	J	F	N	M	Ñ	B	A	N	U	A	X	U	K
S	U	O	I	R	D	F	E	U	I	A	D	Ñ	U
A	G	L	K	U	T	O	I	X	B	F	G	I	E
N	G	D	E	N	I	T	T	U	A	N	E	G	P
N	A	U	T	T	I	Z	X	A	J	G	I	K	L
H	E	B	A	L	I	T	Z	A	T	M	U	K	O

Jarri biharko dittuzuen aditzok hurrengoak izango dira:
- gontzan, nittuan, zaittu, balitzakue, neike, notsan, balitzat, zittuan, giñuan, dotsa, gaittue

JOKUA

Aztia banintz...

Zozketa bidez jokuekin hasiko dana aukeratuko da eta honek "Aztia banintz... etxeko tresna danak gorritz margotuko nittuzke" esango dau.

Ondoren, partaide danak denbora tarte batian (minutu bat, adibidez) etxian daren tresna gorrixak aurkittu eta paper batetan idatzi biharko dittuzue.

Denbora amaitzian, tresna gehixen aurkittu dittuen jokalarixa izango da irabazle eta bera izango da esaldixa esango dabena:

"Aztia banintz...."





BERGARA
Amagoia Roman
Apirilaren 8an, 5 urte.
Zorionak! Etxekoak, Jokin,
Alazne eta Asier.



BERGARA
Leire Ugalde
Apirilaren 7an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nagore Pelicano
Apirilaren 5ean, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak, batez ere Beñat.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan
17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua



BERGARA
Diego Tena
Apirilaren 7an, 34 urte.
Urte askotarako!
Yerkam, Maria eta Marga.



BERGARA
Eugenio Diez
Apirilaren 9an.
Zorionak! Etxekoak,
Bereziki Gorka eta Unai.



BERGARA
Isa Diez
Apirilaren 13an,
Zorionak! Etxekoak,
Bereziki Gorka eta Unai.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.

Orain Goiena Telebista zuntz optikoan ere ikus dezakezu

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibaren eta Euskaltelen artean sinatu berri den hitzaremenari esker,
Euskalteleko bezeroa bazara, aurrerantzean, Goiena Telebista kablez ere ikus dezakezu

S11 katean (231.25 MHz)

Kontuola

ANTZUOLA / Eguaztena / 2004eko apirilaren 76a / 197. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Udalbatzarrak 2.585.797 euroko aurrekontua onartu du 2004rako

AINTZANE IRIZAR

Aurreko asteko egubakoitzean egin zuten apirileko osoko bilkura, eta hantxe onartu zituen udalbatzarrak 2004ko aurrekontuak. Guztira, 2.585.797 euroko aurrekontua izango du aurten Udalak; iazkoarekin alderatuta, %6,7 egin du behera aurrekontuak.

EAJ-EAko zinegotzien aldeko botoekin onartu zituzten 2004ko aurrekontuak aurreko egubakoitzean. Gertu Gae plataformako kideek ere parte hartu zuten osoko bilkuran. PSE-EEko zinegotzi Elvira Kortajarena, berriz, ez zen batzarrean egon.

Aipatzekoa da behera egin dutela aurrekontuek, iazkoekin alderatuta. Beherakada hori ulertzeko, kontuan hartu behar dugu Etxebizitza eta Hirigintza batzordeak 1.245.000 euroko aurrekontua izan zuela iaz, aurtengoaren ia bikoitza. Batzorde horretatik bideratu ziren inbertsioak ere handiak izan ziren: Uzarragako zubia zabaltzeko, industrialderako lurrak erosteko eta Buztin-zuriko etxebizitzaren ingurunea kudeatzeko, besteak beste.

INBERTSIO AIPAGARRIENAK

Guztira, 619.838 euro inbertituko dituzte; aurrekontu osoaren %23,9, hain zuzen ere.

Urtero moduan, Etxebizitza eta Hirigintza batzordean egingo dituzte inbertsio handienak: 336.314 euro, hain zuzen ere, inber-



Errekaren gainezkabidearen lan batzuk egiteko, 85.000 euro inbertituko ditu Udalak.

Aurrekontuak eta inbertsioak batzordeka

BATZORDEA	AURREKONTUA	INBERTSIOA
Administrazio orokorra	349.309 €	12.682 €
Gizarte Seg. eta Sustapena	318.703 €	6.600 €
Hezkuntza	234.575 €	170.600 €
Etxebizitza eta Hirigintza	678.293 €	336.314 €
Komunitate Ongizatea	227.980 €	4.300 €
Kultura	179.503 €	32.342 €
Gazteria	46.935 €	9.500 €
Kirolak	110.955 €	39.000 €
Liburutegia	49.605 €	6.500 €
Euskara	67.706 €	—
Nekazaritza	177.046 €	2.000 €

tituko dituzte batzorde horretan.

Hona hemen 2004. urterako aurrez ikusten dituzten inbertsio aipagarrienak: erretiratuen lokalerako, 6.000 euro; haurtzaindegiaren lokalerako, 170.000 euro; kaleetako hainbat lanetarako 85.000; errekarren gainezkabidearendako 85.000 euro; Gizarte Etxerako 20.000; futbol zelaiaren hainbat lan egiteko, 25.000; gazteendako lokalerako, 9.500; futbol zelaiaren eta kiroldegiaren proiektuak idazteko, berriz, 5.000 euro bideratu dituzte.

LABUR

Arrolak Arantzako Zirkura egingo du irteera

Apirilaren 25ean, domeka, Arantzako Zirkura egingo du irteera Arrola Mendi Elkar-teak. Oiarzumen hasiko dute ibilaldia eta handik Artikutzara abiatuko dira, mendiz mendi. Hiruzpalau orduko ibilaldia izango da, erraz egitekoa. Gehiago ibili nahi dutenek, aukera izango dute Elkaitza eta Mendaur gailurretara igotzeko.

Apirilaren 20an, martitzena, egongo da izena emateko aukera, Arrolaren egoitzan, 19:00etatik 20:00etara. Irteera, 08:30ean izango da Herriko Plazan.

Bergarako bidea dela eta, idatzi bat Diputazioari

Bergararako bideak itxita jarraitzen duela eta, idatzi bat bidali dio Udalak Gipuzkoako Diputazioari. Udalak salatu du Diputazioak ez diela informaziorik ematen, eta era berean, bidea lehenbailehen zabaltzeko eskatzen dio. Herriarren protesta ugari jasotzen duela ere badiu Udalak.

Idatzi horretan, egunero Bergarara joan behar izaten duten antzularren egoera aipatzen du Udalak. Lehen baino zenbat kilometro gehiago egin behar izaten dugun ere azaldu dio Diputazioari bidalitako idatzian.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

UDALA

Mañarieta izena jarri diote Zurrategi ondoko kale berriari

AINZANE IRIZAR

Aurreko egubakoitzeko osoko bilkuran udalbatzak erabaki zuen Zurrategi ondoko etxe berriei Mañarieta izena jartzea.

Inguru hori Maniixa edo Maniixape moduan izan da eza-guna herrian; adosatutako etxe horiek egiteko sortu zuten elkar-teari Petxanima izena jarri zioten, Maniixaperi buelta emanda. Hala ere, Euskaltzaindiak esan du Maniixa izenaren jatorria dela

Mañarieta eta izen horixe jar-tzea erabaki dute.

Udalak emandako beka bati esker, herriko toponimiaren gai-neko azterketa egiten dihardu Kristina Pavok; ikerketa horretan, Euskaltzaindiaren aholku-laritzaz zerbitzuaren laguntza dauka. Hori aprobetxatuta egin da kale berriari izena jartzeko azter-keta ere.

Egunotan jaso dituzte etxebi-zitzetako giltzak jabekide gehie-nek; ingurua urbanizatzea bes-

terik ez da geratzen, kale berria bukatzeko eta bizilagunak hara bizi izatera joateko.

LASTER, SAN JOSE AZPIKO ETXEAK

San Jose azpian egiten dihardu-ten etxeek ere kale berria osatu-ko dute laster, eta horri ere ize-na jarri beharko zaio. Udalak oraindik ez du izenik erabaki, bai-na, eskuartean dituzte Euskal-tzaindiaren hainbat proposamen: Soroaundixa eta Kaminpe ize-nak, hain zuen ere.



AITOR LIZARRALDE

Euskaltzaindiak esan du inguru horren jatorrizko izena Mañarieta dela.



Ipuin kontaketa saioa egin zuen Maite Toledok

Aurreko egubakoitzean, Haur Liburuaren Eguna zela eta, hainbat ekitaldi egin zituzten Udal Libur-utegian. Arratsaldean ipuin kontaketa saioa izan zuten umeei. Maite Toledok *Erregearen traje berria* ipuina kontatu zien umeei. Bestalde, eskolako neska-mutikoei egindako marrazkiak ikus-gai jarri zituzten, liburutegian bertan./A.I.

LABUR

Sagastiko etxebizitzaren baldintza pleguan aldaketa bat egin behar izan dute

Udalaren ekimenez Sagastin egiten diharduten etxebizitzaren bal-dintza pleguan aldaketa bat egin behar izan dute. Pleguan jartzen zuen 15 urteren barruan etxebizitza salduz gero, Udalak izango duela erosteko lehentasuna eta berak jarriko diola prezioa. Lege-ak behartuta, 10 urtera murriztu behar izan du Udalak epe hori.

Udalak begiraleak behar ditu 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoekin lan egiteko

12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoendako lokal bat egokitzeko asmoa dauka Antzuolako Udalak. Lokal horretan lan egiteko begiraleak behar ditu Udalak. Begiraleek asteburutan lan egin beharko dute. Interesa dutenek udaletxera eraman beharko dituzte curriculum-ak, apirilaren 23a baino lehen. Udaletxeko bulegoen ordutegia da 08:00etatik 15:00etara.

Maiatzean trenaren gaineko erakusketa egingo dute, eta materiala batzen dabilta

Antzuolako trenbidearen eta trenaren gaineko erakusketa anto-latzen dihardu Udalak. Maiatzaren 15ean zabalduko dute era-kusketa, eta bi asteburutan egongo da ikusgai. Orain, erakuske-ta horretarako materiala batzen dihardute. Hortaz, norbaitek argaz-kiak edo bestelako materialik balu, udaletxera, Jone Larrañagarengana edo Iñigo Ramirez de Okarizengana jo dezake.

HERRITARREN HITZA / Ainhoa Ugarteburu · Soziologoa

Nik be bai

Gaur goizian, esate baterako, esnatu ta espiluan begiratu zara, "ah zelako itxuria daukazun!!!" Horrek dittun ilia, edo ta zelako begizuluak, ta ezpanan gainian jaixotzen hari jatana ez ta ba berriz ditzosozko bigotia izango!!! Balantzara ixo ta 3 kilo gizendu naiz Gabonetatik, ta laster "operacion bikini". Halakoetan, askok ta askok espiluari begiratzari laga egin jao, edo batzuk badira urtetan ez diranak pisatzen, badaezpa-da be.

Igual, batzundako oso azalekua izan leike, honetaz berba egittia, baina nik ez

daukat dudarik be emakumiok itxura fisiko egoki bat edukitzeko dauka-gun gogua, biharra, obseziñua, edo dana dalakua, holakotxe gauzatxotan ikusten dala. Windsoreko dukesak esaten zeban "Emakumea ez da sekula nahi adina aberats ez eta nahi beste argal", lehenengo esaldixa igual ez giñuan sinistuko, baina, bigarrena bai, ezta? Ta posible da, goizetako anekdotaxo hauek, uste dana baino



"Beti gazte ta argal egon biharra lotu egitten gaittu"

Azkenian gizarte baten bizi gara, ta begiratzen dogun moduan, begiratuak be bagara. Hala be, urte hauetan,

arazo haundixaguak gordetzia.

Danori gustatzen jaku guapuak, eta guapak nola ez, ta baita norbera be guapa ikustia. Erropa horrek, ile orrazkera horrek, baita gorputz konkretu bat edukitziak, gustua ta plazerra dakar, zeuretako ta baita bestiendako be.

androk, gauza asko egin dittugu aurreko loturetatik askatzeko, independentzia ekonomikotik hasi, ta ikasketak, sexu askatasunak, gizartian aktiboki parte hartzeko aukerak, gure egoeria hobetzen lagundu dau. Baina nere ustian, beti gazte, argal eta guapa egon biharra, badauka kontrol sozial puntu bat, lotzen gaituana. Uste dot, batzutan sinisten dogula, guapa, argal ta gazte izatiak, beste meritu guztiak baino inportantiaguak dirala, horrek ekarriko doskula arrakasta soziala, oreka emozionala ta zoriona. Neuk be sinisten dot batzutan, beraz, *mea culpa*.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Apirilaren 25era arte ez dute partidurik izango herriko futbol taldeek, Aste Santuko oporraldiak direla eta.

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 3 La Salle 0 (2. erreg.)
Antzuola 2 Eibartarrak 7 (Kadeteak)
PILOTA
Elgetako lau t'erdiko txapelketa
Lagos 10 Xabier Biteri 22

Goibekokale

ELGETA / Eguztena / 2004eko apirilaren 7a / 181. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Iparraldeko literaturaz hitzaldia eta kantaldia

IRATI AGIRREAZALDEGI

Iparraldeko kultura ezagutzera emateko *Iparraldea bertan* egitasmoa ipini dute abian. Ekitaldi sorta antolatu dute Debagoienarako, eta ekitaldi horietako bat Elgetan izango da. Iparraldeko kultura gertutik jarraitu nahi dutenek, beraz, badute aukera.

Debagoieneko Mankomunitateak deituta, Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak *Iparraldea bertan* egitasmoa antolatu du.

Debagoieneko eta Iparraldeko kulturak elkar ezagutzera da programa honen asmoa. Horretarako, datorren apirilaren 21etik maiatzaren 2ra bitartean kultura hamabostaldia egingo da Debagoienean. Ekitaldi sorta honen baitan, musika emanaldiak, errezitaldiak, antzerkiak, dantzak, hitzaldiak eta erakusketak izango dira Debagoieneko herrietan.

ELGETAN APIRILAREN 22AN

Elgetaren txanda apirilaren 22an izango da. Arratsaldeko zazpietan kultur etxean *Iparraldeko literaturaz* emanaldia eskainiko du hirukote batek.



Itxaro Borda hizlari izango da Elgetan apirilaren 22an.

Hitzaldi musikatu honetan, Itxaro Borda Baionako poeta eta idazleak, 2002ko Euskadi Literatur Sariaren jabeak, hizlari lanak egingo ditu.

Pier Paul Berzaitz pastoralgile eta musikazale zuberotarrak kantuan jardungo du eta Karlos Jimenez musikari ezagunak pianoa joko du.

ESKOLA

Eskola Txikien Jaia Elgetan egingo da

I.A.

Aizarnazabalen egingo da aurten, ekainean, Gipuzkoako Eskola Txikien Jaia. Bertan, Elgetako Herri Eskolari pasatuko diote lekukoa, datorren urtean, 2005ean, hemen egingo baita festa.

Ekaineko bigarren domekan izango da jaia Elgetan, eta Guraso Elkartekoak jadanik hasiak dira jai honetarako prestaketa lanetan.

Besteak beste, jaiaren adierazgarri izango den logotipo bat egin nahi dute lehenbailehen, ondoren kamisetak atera ahal izateko. Kamiseten salmentarekin jaia antolatzeko dirua lortzea da helburua.

HERRITARREN LAGUNTZA

Eskolako umeen gurasoek egin dute bilera jaiaren nondik norakoez elkarrekin berba egiteko, eta antolakuntzarekin aurrera egitea erabaki zuten bertan.

Horrez gainera, Guraso Elkartekoek jakinarazi digute Aste Santuko oporren ostean Udaleko eta herriko elkarteetako ordezkariekin eta oro har herritarrekin elkartuko direla.

Izan ere, elgetarren laguntza ezinbestekoa da horrelako jai bat antolatzeko. Guraso Elkartekoek ziur dute herritarrek jaia antolatzen eta egunean bertan ere lagunduko dutela.

Gutzira, 25 eskola txikitik gora dago Gipuzkoan, horietatik gehienak Goierriin. Hainbat herrik zeukaten datorren urtean jaia antolatzeko aukera, baina azkenean Elgetako Herri Eskolari egokitu zaio.

Izan ere, Zeraingo eskolak hemendik urte batzuetara beteko ditu 25 urte. Beraz, urteurreneko ospakizunen baitan sartu nahi dute Gipuzkoako Eskola Txikien Jaia ere. Zubietan, berriz, herrian obretan dihardute, eta ez dute egokitzen jo herria horrela dagoen bitartean festa bertan antolatzera.

IKUSKIZUNAK

Egunean bertan, goizean, eskola bakoitzeko umeek euren emanaldi bereziak eskainiko dituzte guraso, irakasle eta umeendako. Ondoren, herri bazkaria izango da, eta arratsaldean jolasak, ikuskizunak eta beste hainbat gauza egingo dira.

Eskolako umeak Intxortan

Barikuan hartu zituzten Aste Santuko oporrak Herri Eskolako umeek. Oporretara joan aurretik azken eguna mendian pasa zuten batzuek. Hirugarren mailatik seigarrenera arteko neska-mutilak Intxortara joan ziren, irakasleekin, bariku goizean. Lokatz artean egin zuten bidea, baina, hala ere, umeak gustura ibili ziren. Intxortan argazkia atera eta, nekata bueltatu arren, izango dute atsedenerako nahikoa denbora. Izan ere, 19an hasiko dira berriz eskolan./I.A.

LABUR

1968an jaiotakoek ospakizuna egiteko dei egin dute

Ohikoa izaten da urte berean jaiotako herritarrek urte batzuen buruan ospakizun baten bueltan elkartzea. 1968an jaiotakoek horrelako ospakizun bat egiteko asmatan dira, baina aurrez kintanda horretakoek elkartu egin beharko dute, nolako ospakizuna egin nahi duten erabakitzeke eta joateko prest daudenak zein diren jakiteko. Beraz, 1968an jaiotakoekin parte hartu nahi dutenek Garbiñe Ormaetxearengana jo beharko dute.



ELKARRIZKETA

JOSE ANTONIO RETOLATZA/PROZESIOKO PARTE-HARTZAILEA

“Bariku Santuko prozesioa kristauok gure fedea agertzeko modu bat da”

I.A.

Bariku Santuan, mezaren ostean, prozesioa izango da herrian. Urte batzuetan desagertuta egon ondoren berreskuratu egin zuten. Jose Antonio Retolatzak prozesioan hartzen du parte, eta berak eman digu ohituraren berri.

Noiztik dator Elgetan prozesioa egiteko ohitura?

Aspaldiko kontua da, umetatik gogoratzen dudana. Orduan bi egunean egiten zuten. Eguzen Santuan, San Juan, Ama Birjina eta Nazarenoaren irudiak ateratzen zituzten. Bariku Santuan, berriz, Nazarenoaren ordez Hilobi Santua. Irudia oso polita da, baina astuna, 300 kilotik gorakoa, eta jende asko eta indartsua behar da hura eramateko.

Zein da prozesioa egitearen helburua?

Kristauok gure fedea agertzea historia gogoratuz.


Urte batzuetan etenda egon zen. Zer dela-eta erabaki zenuten berreskuratzea?

Orain dela urte batzuk, Jose Luis Aperribai Elgetan apaiz zegoela prozesioa berriz egiteko aukera proposatu genuen, eta talde bat lanean hasi ginen. Ingurukoan artean jendea topatu eta lortu genuen asmo horrekin aurrera egitea, ohitura gordetzeko.

Zein aldaketa izan dira?

Orain egun bakarrean egiten da eta kantuan egiten den ibilbidea orduan baino laburragoa da. Eta Hilobi Santua ez da ateratzen. Jende askok hartzen du parte?

Irudi bakoitza eramateko lau lagun behar dira. Hauek tunikarekin eta buruko kaputxarekin joaten dira. Bestalde, zuzendaria, gurutzea eramaten duena eta apaizaren laguntzaileak daude. Horiez gain, arropak eta irudiak gertatzen ere ibiltzen da jendea. Elizkizunetara lehen beste jende ez da etortzen, baina kalean ikustera gerturatzen dira herritarrak.



I.A.

Jendeak erantzuten duen bitartean Aste Santuko prozesioarekin jarraituko dugu

Ohiturarekin jarraitzeko asmorik baduzue?

Jendeak erantzuten duen bitartean aurrera jarraituko dugu. Baina jendea faltaz gero, orduan hartu beharko da erabakia: bertan behera utzi edo beste irtenbideren bat eman.

Gure erronka noizbait Hilobi Santua berriz ateratzea da, baina oso pisu astuna du

Inoiz aterako duzue berriz Hilobi Santua?

Hori da gure erronka eta inoiz gure artean aipatu izan duguna. Baina eraman behar dutenek prestatu egin beharko lukete; beraz, ez dago gure esku hori erabakitzea.



Sri Lankatik Elgetako lau t'erdikora

ETB Kantxa lau t'erdiko pilota txapelketa aurrera doa. Asteburuan hainbat partidu izan ziren jokoan, eta pilotari batzuk jadanik txapelketatik kanpo geratu dira. Kadete mailan, esaterako, Andoni Elortza elgetarrak jardun zuen eta kanporatu egin zuten. Bestalde, bitxikeria moduan aipatu jaiotzez Sri Lankakoa den pilotari batek ere jokatu zuela barikuan./I.A.

LABUR

Ozkarbi Elkartearen egunerako izena emateko azken eguna apirilaren 18a da

Azken urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere Ozkarbi Elkartearen eguna ospatuko dute bertako bazkideek. Maiatzaren 2an, hila-beteko lehenengo domekan, izango da ospakizuna. Eguzi horretako ekintzak antolatzen diharduen Zuzendaritza batzordeak jakinarazi digunez, garrantzi handia dauka aurrez jakiteak bazkaritarako zenbat lagun elkartuko diren. Beraz, maiatzaren 2ko jaian parte hartu nahi duten bazkideek apirilaren 18a baino lehen eman beharko dute izena, hori baita azken eguna. Interesa dutenek Ozkarbiko iragarkien taulan aurkituko dute informazioa. Antolatzaileek bazkideak animatu nahi dituzte ospakizunera joateko.

Udal Kirol Zerbitzuetan etenaldia izango da Aste Santuko oporrak pasatu artean

Aste Santuko oporrak direla-eta Udalak antolatutako kirol ikastaroak eten egingo dituzte. Apirilaren 7an izango da ikastaroetako azken eguna, oporrak hartu aurretik, eta ikasleak Pazko astearen ondoren itzuliko dira, lehenengoak apirilaren 19an, astelehena. Bestalde, herriko umeak oporretan izango direnez, eskola kiroleko saiorik ere ez da egongo eguzi horietan, ezta entrenamendurik ere. Udal Kirol Zerbitzuak hainbat ikastaro eskaintzen ditu urte osoan barrena, opor garaian, oraingoan bezala, etenaldiak egiten badituzte ere: erretiratuendako zein gainontzeko herritarrendako sasoiaren egoteko gimnasia, aerobika, yoga eta taichi eskolak ematen dituzte, hain zuzen ere.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

BOLATOKI
Eguneko menua
Asteburuan menu bereziak
Konbinatuak, ogitartekoak eta kazuelatxoak
Karta eta babarrun-jana enkarguz
Artekale 2, ELGETA, 943 76 82 84

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA
Goibekokale

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Neska taldea
oporretan
herri sarreran

Aste Santuko oporrak gainean ditugun honetan, guk ere opor usaineko argazki bat ekarri dugu orrialde hauetara.

Neskatilen soinekoak ikusita, ordea, ikusten da ez dela Aste Santukoa, udakoa baizik. Orduko beroei aurre egiteko arropa arina jantzi zuten egun hartan Elgetako neskatilek.

Baina elgetarrak ez ezik kanpokoak ere agertzen dira erretratuan. Izan ere, udako oporrak herrian pasatzera etortzen ziren kanpotik, Bilbotik, hain zuzen ere, hainbat lagun.

Soinekoak eta itxurak ez dira aldatu diren bakarrak. Elgetako sarrerako bidean orain auto asko ibiltzen da eta errepidea berria izateaz gain, semaforoak ere badaude gaur egun.

Neskatilak agertzen diren tokian, atzeko aldean, orain hainbat lantegi daude, Pagatzako industrialdekoak.

Oporretan egonda nola ez egon pozik, eta hori igartzen zaie, gainera, neska hauei, irribarretsu ageri baitira.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Begoña Telleria, Pili Villanueva, Ana Mari Zabalondo, Maria Asun Agirre, Mari Carmen Etxeberria, Mari Tere Erostarbe, Mari Carmen Sancho, Inmaculada Prieto, Boni Nazabal eta Elena Arozena.

Argazkia: Maria Asun Agirre



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituztu!



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Zein da XVIII. mendeko etxe honen izena?

GALDEDEBALDE

1.

Zein urtetan zabaldu zuten aurreneko aldiz Turismo Bulegoa Bergaran?

- A/ 1995.
- B/ 1992.
- C/ 1997.

2.

Nola du izena Cool Panic taldearen bigarren diskoak?

- A/ Soul time.
- B/ Fire wheels.
- C/ Soul on fire.

3.

Nork irabazi zuen Bergaran amaitutako Euskal Herriko Itzuliaren lehen etapa?

- A/ David Etxebarria.
- B/ Davide Rebellin.
- C/ Alejandro Valverde.



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ONINTZA EGAÑArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Onintza! Galderen erantzun zuzenak:
Bonofotoa: Santa Ana ermitan. / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Orlando tomate frijitua

400 gramoko 3 brik + brik bat doan

1,35 €

225 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARTXIBOA

Ezkerrean, Boni Laskurain.

BERGARAROSPETSUAK

Bonifazio Laskurain (1)

KOLDO PEREIRA

Bonifazio Laskurain, Boni izenez ezagunagoa, Iruran jaio zen 1882an. Bonifaziok 8 bat urte zituenean, bere familia Billabonara joan zen bizi izatera; gaztetxotan Bonifaziok piccola jotzen zuen Billabonako Bandan. Felipe anaiak irakatsi zizkion gure Bonifaziori txistuaren lehen urratsak.

Ildefonsa Txarroalderekin ezkondu eta bi seme izan zituzten, Justino eta Felix. 1916an, Bergarara etorri zen bizi izatera, eta Ubillos oihaltegian hasi zen lanean. Hemen, bere emazte zenaren ahizpa batekin ezkondu zen. Mariarekin beste bi seme-alaba izan zituen: Mertxe, moja joan zena, eta Juanito, 6 urterekin hil zena.

Boni-k ikasle aipagarriak izan zituen, eta guztien gainerik Justino semea. Hiru jole zituen Banda izan zen hasieran. Eta horrela aurkeztu zen bederatzi lehiaketa jarraituetan, Laskuraindarrek (Justino lehen txistulari, Boni bigarren eta Felix beste semea atabalarekin) lehen sariak eskuratu zituzten. Azken saria 1929. urtean eskuratu zuten, Bilbon, derrigorrezko pieza gisa Gorosarriren Naste-borraste interpretatuz.

Ikasle aipagarriak izan zituen 'Boni'-k, eta guztien gainerik Justino semea

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobetua den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 